

## Mikel Armendiak bere doktore tesia irakurri du

2011/04/13

Apirilaren 12an goizeko 12etan, Mikel Armendia Bereciartua doktoregaiak bere doktore tesia aurkeztu zuen Pedro Biteri y Arana Ikastetxe Nagusiko Areto nagusian. Tesiaren titulua hau da: 'Titanio aleazioen makinagarritasunaren ulermena, txirbil formazioaren prozesua aztertzeko teknika aurreratuak erabiliz'.

Doktore hauek osatu zuten epaimahaia:

- Felix Etienne Le Maitre (French Titanium Association)
- Michael Samuel Turner (Advanced Manufacturing Research Centre with Boeing at Sheffield)
- Lander Galdos Errasti (Mondragon Unibertsitatea)
- Manuel San Juan Blanco (Valladolideko Unibertsitatea)
- Endika Gandarias Mintegui (Mondragon Unibertsitatea)

Tesiaren gai zentrala honetan datza, titanio aleazioak gero eta gehiago ari dira erabiltzen sektore aeronautikoan, baina euren aplikazioa mugatuta dago mekanizazio prozesuan lortzen den produktibitate baxuarengatik. Tesi honetan Ti6Al4V eta TIMETAL<sup>®</sup>54M aleazioen mekanizazioarekiko portaera konparatzen da, aldagai industrial (erremintaren desgastea) eta zientifikoak (ebakidura tenperatura, indarrak, etab.) aztertuz. Modu honetan, titanio aleazioen mekanizazioari buruzko funtsezko ikasketa egitea posible izan da.



Mikel Armendia bere tesiaren irakurketa egiten